


PROGRAMA  
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2021



**B**ilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO



# Aimar Arriola

## *Forma desira*

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

*Aimar Arriola* komisarioa *Forma desira* proiektua garatzen ari da ikertzaile AZ-kide gisa Zentroaren programazioaren barruan. Proiektuak artearen eta queer/kuir ikuspegiaren arteko harremana hartzen du esparru orokortzat, eta haren jarduna mugatzen du forma- eta interpretazio-gaien inguruan. Teoria kritikoaren eta gizarte-

zientzien esparruan, queer/kuir ikuspegia deskribatzen da maskulinitateari eta feminitateari buruzko konbentzio sozialak zalantzan jartzen dituen perspektiba gisa, horiek desnaturalizatzen, eta borroka feministen, antirrazisten eta dekolonialen eta LGBTQ+ borroken iraganaren eta orainaren arteko elkarrizketa bilatzen



Forma-desira bat, inaugurazio-ekitaldia



Dogartzi Magunagoicoechearen interbenzioa arropazindiegian. Transición primavera | lanaren proiektioan.

baitu. Baina, zer da queer/kuir perspektiba arteari eta haren espezifikotasunari dagokionez? Nola hurbildu formaren eta sentikortasunaren esparruetatik queer/kuir perspektibara?

Tokiko eta nazioarteko artistekin hitz egitea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza-motatan gauzatzen da. Batetik, idatzizko elkarrizketak eta ekarpenak (Orriak), aldizka Azkuna Zentroaren webgunean argitaratuak. Bestetik, ekoizpen iragankorrak eta aldi baterako ekintzak, artista horien eskutik (Ekintzak).

*Forma desira* proiektua 2020ko abenduan hasi zen, hitzaurre batekin, zeinean ikerketaren abiapuntuak eta asmo orokorrak azaldu ziren, eta [Manu Arregui](#) artistak parte hartu zuen proiektuaren lehen gonbidatu gisa. [Camila Téllez](#) artista [Eszter](#)

[Katalinen](#) lankidetzaz (martxoan) eta [Pablo Marte](#) artista (maiatzean) izan dira hurrengo gonbidatuak. Topaketa horietan honako gai hauek landu dira, besteak beste: lerro makotuen eta mugimendu maneratsuen potentzial artistikoa eta politikoa ([Manu Arregui](#)); iragaitzaz dauden identitateen irudikapena eta ikusgarri izateko nahia ([Camila Téllez](#)); eta pasibotasunaren, intimitatearen eta distantziaren nozioak ([Pablo Marte](#)).

Elementu erreplikari gisa, *Forma desira bat* proiektuari lotutako programazio publikoak [Dogartzi Magunagoicoechea](#) artistak Zentroaren enkarguz sortutako girotze eszenografikoa du.

PROGRAMA  
EUSKARA

UZTAILA ABUZTUA IRAILA 2021



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

gizartea eta kultura  
garaikidea

Bilbao



# Aimar Arriola

## *Forma-desira*

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa



Pasibistak. Forma-desira proiekturako Pablo Martekin garatutako lan-dinamika

Aimar Arriola komisarioak *Forma-desira bat* proiektuarekin jarraitzen du, Azkuna Zentroko ikertzaile AZkide gisa. Proiektua 2020ko udazkenean hasi zen, zentroko programazioaren barruan queer-kuir ikuspegiaren eta artearen presentzia areagotuko zuen lan-ildo propioa garatzeko gonbidapenari erantzunez. Plastika, forma eta interpretazio gaien inguruko esparru mugatuago batera eraman du Arriolak hasierako gonbidapena. Ikertzaileak dioenez, «ikerketan honetan, forma eta edukia ez daude elkarren aurka. Hala, proiektuak bere baitan hartu du queer ikasketen eta performancearen alorreko pentsalari José Esteban Muñozek iradoki zuena: "estetikara jotzeak ez du eskatzen arlo soziala saihesterik". Horren harira, proiektu honetan, forma 'arraroeikiko' interesak ez du ukatzen artista parte hartzaileen konpromiso politikoa».

Tokiko eta nazioarteko artistekin hitz egitea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza-motatan gauzatzen da. Batetik, idatzizko elkarrizketak eta ekarpenak (Orriak), aldizka Azkuna Zentroaren webgunean argitaratuak. Bestetik, artista horien (Ekintzak) ekoizpen iragankorrek eta ekintza publikoak, besteak beste, tailer, proiektzio edo solasaldi publikoen formatuan.

*Forma-desira* proiektua hasi zenetik bost hilabete igaro ostean, honela deskribatu ditu komisarioak hurrengo urratsak: «datorren hiru hilabetean, gogoetan arituko naiz, nire hiru lehen gonbidatu izandako Manu Arregui, Camila Téllez eta Pablo Marte artistekin batera gauzatutako trukeetan eta ekintza publikoetan bizitako kontu batzuei buruz. Saguzar bat edo tximeleta bat espazioan orientatzen diren bezalatsu -Camila eta Pabloreri maileguan hartutako bi irudi, hurrenez hurren-, gauzak ezagutzen hasi naiz, horiek itzultzen didatenetik abiatuta, eta orain ikerketaren abiapuntuko galderak esparru zehatzagoen inguruan antolatzen ari dira. Alde batetik, 'forma' kategoriar

buruz hausnartzen jarraitu nahi dut, eta desiraren eta arrarokeriaren ideiek dualismoak birpentsatzen laguntzen digute, hala nola kurba-zuzena, gainazala-sakontasuna, edo jarduera-pasibotasuna; bereizketa horiek osatzen gaituzte gorputz gisa, eta horrek inplikazio politikoak ditu. Halaber, gauzak pentsatzeko eta bizitzeko neure ikerketa-metodo batekin esperimintatzen jarraitu nahi dut, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta irekian entzutekoa izango den leku batetik».

*Forma-desira* proiektuarekin lotutako programazio publikoari azaroan ekingo zaio berriro. Elementu errepikakor moduan, Dogartzi Magunagoicoechea artistaren eszena-girotzea izango du.

desira de  
FORMA  
desira




*Forma-desira*, hirugarren ekintza publikoa Pablo Marterekin.



PROGRAMA  
EUSKARA

URRIA AZAROA ABENDUA 2021



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

gizartea eta kultura  
garaikidea

**B**ilbao



# Aimar Arriola

## *Forma-desira*

### Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

[Aimar Arriola](#) komisarioak *Forma-desira* proiektuarekin jarraitzen du, [Azkuna Zentroko ikertzaile Az-Kide](#) gisa. Proiektua 2020ko udazkenean jarri zen abian, zentroko programazioaren barruan queer-kuir ikuspegiaren eta artearen presentzia areagotuko zuen berezko lan-ildoan garatzeko gonbidapenari erantzunez.

Urtebete igaro da ikerketa hasi zenetik, eta, gaur egun, proiektua bi eremu edo arloren elkarlagunean dago, eta gune edo eremu horiek bata bestearengana bultzatzen dira. Alde batetik, hausnarketa jarraitua dago "forma" kategoriarantz buruz, eta desira eta arrarotasunaren nozioek dualismoak birpentsatzen laguntzen diguten moduari buruz, hala nola makurrak, azalera-sakonera, edo jarduerapasibotasuna –gorputz gisa eratzeko gaituratu eta inplikazio politikokoak dituzten bereizketak–. Bestalde, esperimentazioa dago, ikerketa-metodo propio batekin, aldi berean diskurtsiboa, plastikoa eta entzutekoa izan nahi duena.

Bertako eta nazioarteko artistekin elkartrukea da ikerketa honen metodologia nagusia, eta bi ekintza motatan zehazten da: elkarriketak eta idatzizko ekarpenak (Orriak), aldizka modu digitalean argitaratuak; eta ekoizpen iragankorrak eta/edo ekintza publikoak artista horien eskutik (Ekintzak), tailerrak, proiektzioak

edo elkarriketa publikoak bezalako formatuetan.

Hiruhileko honetan bi ekintza berri zabalduko dira zentroaren programazioaren eta webgunearen bidez:

2021eko Ate Irekien Jardunaldiarekin bat eginez, eta duela urtebete Manu Arregui artistarekin hasitako solasaldiari amaiera emanez, artistak *Forma-desira* proiektuaren harira egin duen ekoizpen berria aurkeztuko da. Argazki finkoen, fotomuntaketaren, render-en eta bideo-klipen konbinazioan oinarritutako ohar-egiturarekin, lan honek geometriaren eta gorputzaren arteko erlazioekin espekulatzen du, ekintza performatiboaren bidez, eta espazio birtualen eta beste baliabide plastiko eta kontzeptual batzuen sorkuntzaren bidez.

Halaber, hiruhileko honetan, 'Orriak' argitalpen digitalen bigarren atala argitaratuko da Azkuna Zentroaren webgunean, [Camila Téllez](#) artistak egindako testua, *Transición primavera* bere proiektuari lotuta; proiektua, berriz, [Eszter Katalinekin](#) batera banpirismoari buruz egindako ikerketa bat da, queer/kuir, autobiografia eta gorputzaren memoriarekin harremanetan jarrita. 'Orriak' serierako idazkiak, gutunaren eta egunkariaren erdibidean, migrantziari,

mugikortasunari eta identitateari buruzko nozioetan sakontzen du, banpiroaren ikuspegitik, jarrera ahul eta arin gisa ulertuta.

Orain arte, [Dogartzi Magunagoicoechea](#), [Manu Arregui](#), [Camila Téllez](#) (Eszter Katalinekin elkarlanean), [Pablo Marte](#) eta [Sands Murray-Wassink](#) artistek hartu dute parte *Forma-desira* proiektuan.



Manu Arregui, 'Ángulos rectos' (Ángelu zuzenak, 2021), Azkuna Zentroak ekoizia, 'Forma-desira' lanaren testuinguruan.

PROGRAMA  
EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2022



AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao

gizartea eta kultura  
garaikidea



# Aimar Arriola

## *Un deseo de forma (Forma-desira)*

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa

Joan den azaroaren 18an egin zen *Forma-desira* proiektuaren laugarren jarduera publikoa, [Aimar Arriola](#) komisarioak Azkuna Zentroko ikertzaile AZKide gisa garatzen duen proiektuarena. Izan ere, 2020ko udazkenean hasitako Forma-desira proiektua da zentroko programazioaren barruan arte eta queer ikuspegiaren arteko harremana areagotuko zuen lan-ildo propioa garatzeko jaso zuen gonbidapenari Arriolak emandako

erantzuna. Gaingiroki, proiektuaren arabera, queer-a formen potentzial aldakorrari dagokion ezaugarri plastiko bat da, eta, horregatik, bizitzari dagokion gaia da. Proiektuak aurrera egiten du, berezko ikerketa-metodologia baten arabera, bertako eta nazioarteko artistekiko lankidetzaren prozedura nagusizat hartuta. Aldez aurretik bilatzen dena ezagutu beharrean, zientzia handian bezala, *Forma-desira* ikerketaren helburuak elkarlanean azaleratzen dira.

Azaroko hitzorduan [Sands Murray-Wassink](#) izan zuten gonbidatu, Amsterdameko eszena artistikoan queer kultuko figura, eta bere praktika aurkeztu zuen, arte interseksional feministaren eta queer-aren ondarearekin zordun dena. Murray-Wassink-ek pintore, gorputzaren artista eta lurrinen bildumagileztan hartzen du bere burua. *Forma-desira* proiekturako egin zuen saioak hitzaldi eta performancearen arteko forma hibridoak hartu zuen, eta zuzeneko pintura-ekintza luze batekin amaitu zen. Honela deskribatzen du Arriolak han gertatutakoa: "Lurrin-hodei batek bildu zituen espazioa eta gorputzak Sandsen performancean. Ekintzaren une jakin batean lurrina erabiltzeak, eta artistaren eta haren deia entzunda han bildu ginenen artean sortu zen energiak ere, afektibitatezko



Sands Murray-Wassink. *Forma-desira* proiekturako egindako saioko une bat

eta zentzuzko bilgarri bat sortu zuen, oraindik dardara egiten duena. Gorputzak eta egoerak modu sentikorrean bildu eta inguratzeko lurrinak duen gaitasuna, bilgarri hori iraunkorra edo ikusgarriegia izan gabe, horixe eraman nahi nuke hurrengo hiru hilabeteetan egingo dudana, lan horretan saiatuko bainaiz orain arte nire proiektuan gertatu denaren zati bat idatziz jasotzen. Hortik aurrera, prozesua beste gonbidatu batzuegana eta une publikoetara zabalduko da."

Era berean, Azkuna Zentroko artxiboari egindako ekarpen garrantzitsu gisa, eta ikerketa-prozesua dokumentatzeko modu gisa, *Forma-desira* proiektuak *Oriak* argitalpen-sorta proposatzen du, zentroaren webgunean aldizka modu digitalean argitaratuta. Parte hartzen duten artistei enkargatutako testu libreak dira, beren ekintza publikoak zabaltzen eta osatzen dituztenak.

2020-2021ean, Dogartzi Magunagoicoechea, Manu Arregui, Camila Téllez (Eszter Katalinekin elkarlanean), Pablo Marte eta Sands Murray-Wassink artistek hartu dute parte Forma-desira proiektuan. Proiektuaren programazio publikoari berriz ekingo zaio 2022ko udaberrian.



Sands Murray-Wassink. *Forma-desira* proiekturako egindako saroko une bat.





gizartea eta kultura garaikidea

[azkunazentroa.eus](http://azkunazentroa.eus)

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

PROGRAMA  
EUSKARA

APIRILA MAIATZA EKAINA 2022




gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

# Aimar Arriola

## *Forma desira*

Ikerketa-proiektua eta programazio publikoa



*Orriak #2* Camila Téllez, *I have crossed oceans*, barruko irudia.

Aimar Arriola komisarioak *Forma desira* proposamenarekin jarraitzen du, Azkuna Zentroko ikertzaile *Az-Kide* gisa. 2020ko udazkenean hasitako *Forma desira* proposamenak erantzuna ematen dio zentroaren programazioaren barruan queer arloak artearekin duen lotura erakusten jarraitzeko enkarguari. *Forma desira* proiektuak artistekiko elkarrizketa du metodologia nagusitzat, eta orain arte hauek parte hartu dute: [Dogartzi Magunagoicoechea](#), [Manu Arregui](#), [Camila Téllez](#) (Eszter Katalinekin elkarlanean), [Pablo Marte](#) eta [Sands Murray-Wassink](#).

Hiruhileko honetan, *Forma desira* proposamenaren ardatza *Orriak* testu-sorta berrien edizioa eta argitalpena izango da, aldizka modu digitalean zentroaren webgunean argitaratuta.

Parte hartzen duten artistei eskatutako testu libreak dira, beren ekintza publikoak zabaltzeko eta osatzeko dituztenak eta,aldi berean, zentroaren artxiboa aberasten dutenak. Honela dio Arriolak argitalpen-

ekimen honi buruz: "Roland Barthesek liburuaren eta albumaren arteko bereizketa iradokitzen zuen, argitalpen-tipologia eta diskurtso-forma gisa. Barthesen ustez, 'Liburua' -kategoria kontzeptual gisa- premeditazio, esentzia eta hierarkia nozioekin lotzen da, eta 'Albumak', berriz, dispersioa eta

forma irekia irudikatzen ditu. Barthesek albuma irudikatzen zerabiltzan "orri solteak" dira *Orriak* argitalpen-sailari bizia ematen diotenak. Liburuaren eta albumaren artean, hemen bigarrenaren alde egiten dut, forma arraro eta ezezagor gisa, 'queer' forma gisa".

*Orriak* saileko argitalpenik berriena Camila Téllezen *I have crossed oceans* testua da, eta oraindik ere eskuragarri dago zentroaren webgunean. Hiruhileko honetan, ikerketak aurrera egin ahala, Pablo Marteren eta Sands Murray-Wassinken argitalpenak aterako dira.

